

EAEn, 64 urtetik gorako 1,34 lagun daude 15 eta 29 urte bitarteko gazte bakoitzeko

Gazteria-indizea ia erdiraino murriztu da azken 20 urteotan; 65 urteko eta hortik gorako lagunen indizeak gora egin du astiro-astiro, gazteenarena gainditu arte.

Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) erroldako datuen 2011ko eguneraketaren arabera, EAEko gazteria-indizea 14,60 da 2011n, hau da, 15 eta 29 urte bitarteko gazteak EAEko biztanleria osoaren %14,60 dira.

Gazteria-indizeak behera egin du nabarmen 1991tik 2011ra, ia erdira, hain zuzen ere, baina beherakadarik gogorrena 2001etik 2011ra gertatu da.


BILAKAERA 1991-2011	1991			2001			2011		
	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Gazteria-indizea (15-29 urte)	25,36	26,31	24,44	21,56	22,62	20,55	14,60	15,31	13,91

Indize hau garaxeagoa da gizonen artean (%15,31), emakumeen artean baino (%13,91). Baina horren arrazoi nagusia ez da gazteen artean gizon gehiago dagoela emakumeak baino, 65 urtetik gorako gizonen hilkortasun handiagoa baizik. Hilkortasun handiago hori dela-eta, gizon gazteen proportzioak pisu handiagoa hartzen du gizon-kopuru osoan. Izan ere, gizonen gazteria-indizea handiagoa da emakumeena baino, aztertutako urte guztietan, bai eta lurralde historiko guztietan ere.

Gazteria-indizea handixeagoa da Araban (%15,36), Bizkaian eta Gipuzkoan baino (%14,52 eta %14,37, hurrenez hurren).

EAE 2011		Gazteria-indizea (15-29 urte)
EAE	GUZTIRA	14,60
	Gizonak	15,31
	Emakumeak	13,91
ARABA	GUZTIRA	15,36
	Gizonak	15,84
	Emakumeak	14,88
BIZKAIA	GUZTIRA	14,52
	Gizonak	15,33
	Emakumeak	13,76
GIPUZKOA	GUZTIRA	14,37
	Gizonak	15,0
	Emakumeak	13,7

Haatik, 64 urtetik gorakoen indizea arian-arian igo da 1991z geroztik, eta gazteria-indizea gainditu du 2011n (%19,54 eta %14,60, hurrenez hurren).




Gazteria-indizea ez bezala, 64 urtetik gorakoen indizea handixeagoa da Bizkaian (%20,10) eta Gipuzkoan (%19,43), Araban baino (%17,72).

Emakumeen bizitza luzeagoak (edo, beste modu batean ikusita, gizonen hilkortasun handiagoak) indize nabarmen handiagoak dakartza emakumeen artean (%22,21), gizonen artean baino (%16,74). Emakumeen gailentasun hori aztertutako urte guztietan nabari daiteke, baina aldea areagotu egin da 2001az geroztik. Gainera, hiru lurralde historikoetan gertatzen bada ere, Gipuzkoan dago sexu bien arteko alderik handiena.

Bi indizeak uztartuta, zera ikus dezakegu: EAEn, 64 urtetik gorako 1,34 lagun daudela, 15 eta 29 urte bitarteko gazte bakoitzeko. Erlazio hori irauli egin da 1991tik hona, gazteen kopurua nagusiena halako bi zelako eta bien arteko erlazioa, 0,50ekoa.

64 urtetik gorakoen pertsonen eta 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erlazioaren bilakaera (1991-2011)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia egina, INEren datuak oinarri hartuta

INEren 2011ko erroldaren eguneraketa eta aurreko aldietako datuak oinarri hartuta, **Gazteen Euskal Behatokiak** landu eta aztertu dituen balioak aurkituko dituzu jarraian.

BILAKAERA 1991- 2011	1991			2001			2011		
	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Gazteria-indizea (15-29 urte)	25,36	26,31	24,44	21,56	22,62	20,55	14,60	15,31	13,91
64 urtetik gorakoen indizea	12,67	10,31	14,95	17,62	14,98	20,16	19,54	16,74	22,21
Nagusiak / gazteak erlazioa	0,50	0,39	0,61	0,82	0,66	0,98	1,34	1,09	1,60

EAE 2011		Gazteria-indizea (15-29 urte)	64 urtetik gorakoen indizea	Nagusiak / gazteak erlazioa
EAE	GUZTIRA	14,60	19,54	1,34
	Gizonak	15,31	16,74	1,09
	Emakumeak	13,91	22,21	1,60
ARABA	GUZTIRA	15,36	17,72	1,15
	Gizonak	15,84	15,78	1,00
	Emakumeak	14,88	19,64	1,32
BIZKAIA	GUZTIRA	14,52	20,10	1,38
	Gizonak	15,33	17,11	1,12
	Emakumeak	13,76	22,92	1,67
GIPUZKOA	GUZTIRA	14,37	19,43	1,35
	Gizonak	15,0	16,6	1,1
	Emakumeak	13,7	22,2	1,6